

## Unibertsitateak pauso berri bat eman du euskararen sustapenean

Euskalerriko Unibertsitateak, aspalditik gogoan zuen asmo bat martxan jarri du, hain zuzen, "Euskara Institutua". Euskara errektoreordetzaren berripapera *Campus*a, 42. alean ikus daitekeenez, ez da batere erraza izan asmo hau aurrera eramatea. Bederatzi zirriborro egin behar izan omen dira azkenik, "Euskal Herriko Unibertsitateak euskararen inguruan biltzen dituen erakundeen egitekoak ondo zehaztu beharra zegoelako". "Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkeka Saila"ren oneritzia izan du eta, ondoren, beren baietza eman dute "EHEko Euskara Batzordeak", "Gobernu Batzarrak", "Gizarte Kontseiluak" eta "Unibertsitateko Kontseiluak".

Xabier Alberdi izango da ardu-

raduna. Baliabide urrirekin hasiko bada ere, Unibertsitateak 52 milioiko aurrekontua ezarri baitio, asmo handiz abiatu dela esan behar da, esparruak, nagusiki, bi izango direlarik: hizkuntza eta terminologia. Hizkuntzaren arloan besteak beste, hauetxek: irakasle elebidunen hobekuntza, bertako testuliburuen zuzenketa eta "euskaraz egiten diren errakuntzak zuzentzeko liburua prestatzea".

Bigarren esparrua "terminologia"ri dagokiona: "datu baseak egin, oinarrizko glosarioak kaleratu eta hiztegitxo bat prestatu" unibertsitatearen beharren arabera.

Egan aldizkariaren bitartez gure zorionak eta adorea eskaintzen diegu.

G.E.